



AFRODITAREN UMEA SAN TOMASEN IZARRA

Leitzako Kristina Saralegiren txerria izango da gaur protagonista, Donostiako San Tomas egun handian >3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2008-12-21

VIURTEA 1.590.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Jendetza izan zen goiz osoan zehar, produktuak ikusten, dastatzen eta erosten. Animaliak, jakiak, erropa... denetarik izan zen postuetan. ESTI EZEIZA

AZOKA JENDETSUA ETA KOLOREZ BETEA

TOLOSA Eguraldia lagun, jende ugari izan zen atzo, Gabonetako azoka berezian; Odolki Lehiaketan, Kepa Loidi garaile <

Hutsunea Betez taldea hautatu dute urteko billabonatarra <

Astelehena eta asteartea
LIKIDAZIOKO
azken egunak!

Altzin kalea 3 behea
VILLABONA
Tel.: 943 69 15 44



www.mondragon.edu/prest



Desagertzearen liburua IV



» Uzturretik

Koldobika Jauregi

Lo. Lo nengoen auskalo zer amesten, bat batean ekaitzak uhartea astindu duenean. Ez dakit ziur zein den uharre honen neurria, zeren Euskal Herriaz ahazten naizenez bolara batez, uharre honen kostalde edo baso izkina bat desagertzen hasten dira.

Hori dela eta batzuetan ibili izanda naiz harantz eta honantz neurri bat finkatu nahian, baina azkenerako asperturik nonahi eseri eta galdutako lur eremua, hiztegi, kantu edo gogoratzen ditudan oroimenen bidez berreskuratzen saiatzen naiz.

Zertan nengoen?... beno, ba hori, uharre txiki hau kafesne ontzian erorritako gailera txiki baten moduan nengoela, haur batek koi-lara sartu duenean eta noski izuturik eta norabidea galdurik esnatu naiz.

Ekaitza bukatu duenean hondartzara hurbildu naiz, zerbaiten esperan bezala eta hantxe zegoen itsas ekaitzak ekarritako kristalezko botila mezularia.

Inoiz, inoiz etorri ez ba zen hobe.

Zeruko hodeiek mamu ikusezinen gorputz hartu zuten eta haien irribarreak sentitu nituen haize hotz boladetan.

Ikusezina bihurtzea, hori, hori da okerrera. Behin baino gehiagotan esan izan zuen Mikelek.

Baztertuko ziren bai noski, Baztan aldeko lur miresgarriaren lainoak. Azken eguzki izpiak berotu zitzaizkiren errautsak.

Badator olatuen gainetik *Haika mutil* kantari datorren arranoa eta une batez ameskeriak jotaz Lekei-

tioko kostaldeak berregin dira ene aurreko itsas zabalean.

Zein luze eta zein motz dirudite batzuetan egunak eta hori dena egun berean.

Uharre bidaiari honetan iluntzea suertatu da izotz beltz batez dena estalirik geratzen ari dela.

Akaso hau zela eta ikusezinak ziren mamuak eta honi esker beraien hortz kaskaka entzuten hasi nintzaian, bai eta bere irudi kristalizatuak ikusten.

Baga, Biga, Higa, Laga, Boga... Kaixo Mikel, non ibili haiz?

-Arrain abisaletik urrunago, ikusi niken lehenengoan, hasieran txikia zirudien dorrea baina gero eta gehiago hurbildu, gero eta handiago azaltzen zena, Babel, Babel dorrea txo! Bira eta alde egin nuen.

-Nik nonbait irakurria zeukeat Babel dorrea eraikitzearen zigorra, mila hizkuntzetan mintzatzea izan zela, beraien artean moldatu ez zitezen.

-Bejondeiela, hari esker geure euskara maitea hemen ba zegok.

-Ez al zaik iruditzen Mikel, garai artako Babel dorrea gaur egungo globalizazio asunto hau dela?

-Pentsamolde eta hizkuntza bakarra!

Astero hizkuntza bat desagertzen omen dek mundutik, orain dela urte batzuk Euskal Herriari Erronkariz hitz egiten zuen azken amona hil huen.

Amatxo, haurtxo, zerua, maitasuna, bakea, zoria, goxoa, ametsa...

Gerla, mina, gorrotoa, inpernuba, hilketa, kastigua, tristura.

Ezin imajina geure Euskara maitea Babel dorrez kanpo, hainbeste mila urteetan sortutako hizkuntza maitea.

-Hartzak Mikel! Hartzak zato ardoa eta edan ezak, kanta dezagun zerbait, usatu ditzagun.

Ikusezin diren mamu zahar horiek.

Kantatuaz, kantatuaz, zorian eta penak.

Kantatuaz, kantatuaz gure itxaropenak.

Gabonetako azoka berezia larunbateroko azokarekin bat eginik

PABLO ALBERDI

Atzoko Gabonetako azokak aukeratu ikusgarria aurkeztu zigun, bai tolosarrei baita ere kanpotik etorritakoak. Era askotako produktak, ziren, beraz, berezitasunez beteta etorri zen.

Zerkausiko postuetan, garai honetako barazkiak eta, aipatzekoak, bereziki, kardo, porru eta azenariora sorta ezin hobek. Gaur ikus ahal izan dezakegu tuberkulo berri bat *Irona* deitua.

Perretxiko denboraldia bukatu da. Nikalo batzuk soilik saldu ziren 15 eurotan.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merk.	Gares.
Landareak		
Azalea	8,00	-
Xarbota	4,00	6,00
Kalendula	2,50	-
Klabeledina	2,80	4,00

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak	
Nikaloa	15,00 -

Barazkiak (kiloa)

Baba	3,00	4,00
Babarrun zuria	8,00	-
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Tomatea	2,00	4,00
Kalabaza	1,50	3,00

Barazkiak (unitatea)

Kalabazina	0,72	-
Aza	1,00	-
Txikoria	1,00	-
Azalorea	1,00	-

Besteak

Ogi biologikoa (900gr)	3,20	-
Arraultzak	1,10	2,40
Irasagarra	3,00	6,00

Gaztak

Gazta berria	16,00	-
Ardigazta	14,00	18,00

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Fruta	
Sagarra	2,00 3,00
Intxaurra	4,00 6,00

Barazkiak

Kalabaza	1,60	3,04
Tipula	1,75	2,00
Aza	2,50	3,00
Kogoiak	1,00	-
Letxua	1,00	-

K Komikia



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)

E Elkarrizketa

KRISTINA SARALEGI › Baserritarra eta talo-egilea

«Zerria handia da baina sanoa, mugitu ere ezin daitekeena»

Leitza » Goizean goiz trasteak eta zerria hartu eta Donostiara joango zen gaur Kristina Saralegi leitzarra. Jai egiteko aukera handirik gabe gauean itzuliko da herrira.



ASIER IMAZ

ASIER IMAZ

Urteak daramatza Donostiako San Tomasera joaten Kristina Saralegi (Leitza, 1974). Taloak egiteaz gain, azken bost urteetan etxeko zerri batekin joan ohi da. Zerriak ospe handia hartzen du Donostian eta komunikabideetan. Gaur bertan egongo dena Afroditararen Umea izango da, 340 kiloko zerria, nahiz eta Udalak Doña Korkona izena jarri dion.

Donostiako Udalak Doña Korkona izena jarri dio. Zuk nola deitzen zenion?

Korkona. Zein izen arraroa jarri dioten! Hau lehengo Afroditararen umea zen. Afrodita Donostiara duela hiru urte eraman genuen. Harkume bakarra duenez hau beti Afroditararen umea bezala ezagutu dugu.

Santomasera Donostiara joateko Udalarekin akordioaren bat al daukazue?

Aspaldiko urteetan lan egiten dugu Donostian, taloak egiten eta haziendarekin. Nik pentsatzen dut ezagutzen gaituztenez eta haziendarekin ibiltzen garela bada-kitenez, eurentzat ere errazagoa dela ezagun bati eskatzea.

Zerriari berezitasunik eskatzen al diete?

Ez. Umea eta handia izatea baka-rik. Ez dago beste eskaririk.

Zer egiten duzu hain handiak irten daitezene?

Nahikoa jana eman. Gero berezko pixka bat baldin badu eta lehen esan bezala jana emanaz gero, berez egiten dira horrelakoak.

Zerriak fama handia hartzen du kontu honekin. Nazkatu ere egin-gin zinen agian.

Lehendik ere kazetariekin asko ibilia naiz, aizkoran ibiltzen bainintzen. Pixka bat ohituta nago.

Zerriaz gain, taloak egiten egoten zarete Santomasen. Nola bizi ohi duzu eguna?

Egia esatea nahi baldin baduzu ez gara jaiaz asko jabetzen. Normalean lana tope izaten dugu eta ohar-tzerako 17:00ak izaten dira. Goizean goiz abiatzen gara hemendik, 06:00etan. Hara iristen garela eta bata eta bestea 10:00ak izaten dira. Martxan jartzen zara eta ordua galdetzen duzunean arratsaldea da jadanik. Pintxoren bat jan eta berriro lanera, 20:00etan bukatzen da ordua. Dena bildu eta etxera. Gero denok Leitza afaltzen dugu. «Hori parranda!» eta antze-koak esaten dizkizute baina guk ez dugu deusetarako denborarik.

Zerriarekin zer egiten duzue, har-tu eramane eta ahaztu?

Ez. Gutariko bat bere inguruan gelditzen da. **Eta ondoren zozketa.** Ez, ez da zozketarik egiten. Lehen egiten zen, baina zozketa zea animalien aurkako tratu txarra omen

da. Ondorioz bueltan itzultzen da. Izugarriko arazoak izan omen zituzten ekologistekin eta salaketak eta abar eduki omen zituzten. Ez dakit, jendea zozketa egin edo ez egin berdin berdin inguratzen zazio. Zergatik ez den egiten? Ba ez dakit.

Donostiara modelo lanak egitera bakarrik eramaten duzue beraz Afroditararen Umea.

Bai. Gero etxera etorriko da, ake-tza botako diot, umeak egingo ditu eta aire.

Askotan morboa ere bilatzen da horrelakoetan. Izugarriko zerria etzanda, arnasa hartzeko ere arazoekin...

Behin ere ez da gertatu nere zerririk kasu hori. Handia bai baina sanoa, ez mugitu ez daitekeena. Orain ere esaten dizut, hor kanpo-an belazean ari da jaten.

Biharamunik izango al du Donostiatik itzuleran zerriak?

Sekula ez diogu nabaritu ezer handik etorrita, gaiztoagoa edo... Hurrengo goizean atea ireki eta segi.

Hurrengo urtean berdina eman behar.

Ez digute uzten. Beti behar dazerri berri bat.

Gertutik jarraitzen dute zerria beraz hiriburuan.

Aurreneko urtean zerriarekin joan nintzenezan bezala. [Barreak] 09:00etarako Boulevardeko iskinara joateko esan zidaten. Zertarako galdetu nien eta bi munizipal han zain izango nituela esan zidaten. Zerria plazara eskoltaturik eramateko. Eskoltarekin sartu txerria? Bai, horixe bakarrik falta du. Gurekin batera joan zen 06:00etan eta 07:00etarako plaza ia jarrita genuen. Oraindik ere han egongo dira munizipalak esperoan. [Barreak]. Ez dot esaten ateratzerakoan, 21:00ak aldera, jende pixka bat ibiltzen da eta laguntzeko, baina sartzeko?

Beste anekdotarik?

Orain dela bi urte, Anbrosio furgonetan eraman genuen. Boulevardera heldu ginenean, ez dakit zer gertatu zitzaion baina hor saltatu zen furgonetaren kristalera. Kristala hautsi eta ia ia eskapatu zitzaion. Beti zerbaitek graziosoa izaten dugu.

L Laburrak

Guraso elkartearen zozketaren zerbakiak

ABALTZISKETA » Guraso elkarteak antolatatu zuen zozketako zerbaki saridunak ondorengoak dira: 2.165 eta 1.326. Lehen zerbakia zuena agertu da eta saskia irabazi du. Bigarren zerbakia duena ez da oraindik agertu, kasu honetan, irabazleak bi lagunentzako afaria dauka zain.

Euskararen inguruko hitzaldia, etzi, 19:00etan

LEITZA » Kultur Taldeak Koldo Zua-zoaren hitzaldia antolatatu du etzi herriko liburutegian 19:00etan. Gure euskarari buruzko I. jolasaldiaren barnean kokatua dago ekimena eta Koldo Zua-zoak *Zertan da etxeko euskara?* galderari erantzungo dio hilaren 23an.

Mozarten amaitu gabeko lana gaur 11:45ean

LEITZA » Herriko Jeiki Abesbatzak kontzertua, Mozarten Requiem Meza, eskainiko du Sinfonietta Academica Orkestrarekin batera gaur 11:45ean Leitza-ko Elizan. Mozartek amaitu gabe utzi zuen 8 ataleko obra ikusteko aukera egongo da, beraz, gaur Leitza.

Abel Barriola leitzarra BBK Mastersaren finalean aurkitzen da

ASIER IMAZ

Abel Barriolak 22-6 irabazi zion atzo Julen Retegiri Iruñeko Labrit pilotalekuan. Ondorioz, buruz buruko BBK Mastersaren finalean sartu zen leitzarra.

Retegi gazteak Aimar Olaizola-ren ordezkari jokatu zuen eta saiatu zen arren Barriola erraz gailendu zen.

Finaleko aurkaria Irujo eta Gonzalezen arteko partidatik irtergo da eta azken partida hurrengo asteburuan jokatuko dute.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Hutsunea Betez taldea 2008ko billabonatarra



Irrintzi Elkarteak kideak, udal ordetzaria eta Hutsunea Betez taldeko urteko billabonatarrak. ASIER IMAZ

Villabona » Irrintzi Elkarteak urtero herriko talde edo pertsonaia bat sarituko du Irrintzi Saria emanaz.

ASIER IMAZ

Irrintzi Elkarteak atzo banatu zuen Irrintzi Saria 2008 edo Urteko Billabonatarri Saria. «Herriaren alde egiten ari diren lanagatik» Hutsunea Betez taldeari eman zion saria Villabonako Elkarteak.

Aurten jarri dute martxan ekimena baina euren esanetan «sari honen edukia urtetik-urtera handitzen» jarraitu nahi dute, Villabonan «erreferente bat» bihurtu dadin.

Aurtengo «errekonozimendu

xumea, merezimendu osoz» Hutsunea Betez taldeari egin nahi izan diote; «emakumearen diskriminazioa salatu eta egoera horietan bizi diren emakumeei laguntza ematen dien talde bat herrian egotea funtsezkoa iruditzen zaigu».

«Poztasun handiz»

Hutsunea Betez taldeko emakumeek poztasun handiz jaso zuten Urteko Billabonatarren saria: «Arro sentitzen gara gure lana eta esfortzua baloratu duzelako. Aldi berean, egunerokotasunean lanean jarraitzeko indarrak ematen dizkigu omenalditxo honek».

Azkenik, Hutsunea Betez taldeko kideek atek zabaldu zizkieten Amasa-Villabonako emakumei, euren behar eta interesen inguruan mintzatzeko.

Olentzenok zoriona ekar diezazula.

Eta saskibaloiaraka bana bat ere bai.

INFORMAZIOA: 943 24 94 20. Hasi arropa p. 1. Gizona lan berrera: www.gipuzkoasasket.com

ABENTUAK BAILARA
GIZA ENKUBIDE GUSTIEN ALDE,

MANIFESTAZIO ISLA

Abenduaren 31 arratsaldeko 7tan Villabonako plazatik Zizurkilgo plazara

Kimetz

Mutil arropa
Kale Nagusia 13
943 24 94 96

Neska arropa
Kale Nagusia 21
943 67 38 62

www.kimetz.eu

txokoa **h**

5 sarrera pare

zozketan emanaldi bakoitzerako, deitu eta eskuratu!



Abenduak 27 • Larunbata • Ibarra
eta
Abenduak 29 • Astelehena • Alegia

Sarrera pare

zozketan, deitu eta eskuratu!

BRUESA GBC

Unicaja Malaga

IGANDEA

ABENDUAK **28-12:30**

ILLUNBE



2 sarrera pare

zozketan, deitu eta eskuratu!



Bertso-saioa

Igandea • Abenduak 28
17:30ean

Ibarra Belabieta kiroldegian



Eguraldia lagun zela, jende ugari hurbildu zen atzo goizean Tolosara, azoka berezia ikustera. E. EZEIZA



Azokaren baitan, Odolki Lehiaketa izan zen. E. EZEIZA



Oreinak beharrean, aurten antxumeak izan dira. E. EZEIZA



Triangulo plazan, garaioko fruitu eta barazki eskaintza zabala aurki zitekeen. E. EZEIZA

Azkenik, euririk gabeko azoka

Ekonomia » Gabonetako Azoka, urteko azken azoka berezia ospatu zen atzo; jende ugari hurbildu zen ikusmiran, eguraldiak animatuta.

ESTI EZEIZA

Atzo ospatu zen Tolosan urteko azken azoka berezia, Gabonetakoa, hain zuzen ere. Hurrengo hemendik bi hilabetera izango da, hau da, otsailean. Orduan, zuhaitzen txanda izango da.

Bi hilabetetan, euria gelditu gabe egin badu ere, atzokoan azkenean, atertu zuen. Hala, honek eta eguzki printzek animatuta, jende ugari gerturatu zen erosketak egitera eta eskaintza zabala begiratzera.

Hiru gunetan banatuta zeuden postuak. Alde batetik, Plaza Zaharrean, euskal txerria eta txerriumeak ikusi zitezkeen. Hauen ondoan berriz, antxumeak eta aker txikiak. Hasiera batean, oreinak egon behar bazuten ere, hauek azkenik ezin izan zituzten ekarri.

San Frantzisko ibiltokian, bertako jakiez gain, artisaun lan ugari topatu zitezkeen. Azkenik, Triangulo plazan, fruitu eta barazki aukera

zabala zegoen salgai, kolore biziz jantziz postuak. Toki berean, Tolosako merkatarien ekimenez, dendetako produktuak eskuratu zitezkeen.

Odolki onenaren bila

Azokaren baitan, San Blas elkartearekin elkarlanean Udalak antolatutako Odolki Lehiaketa jokatu zen. Bertan, Orioko Kepa Loidi izan zen garaile. Bigarren, Beasaingo Olano Harategia geratu zen.

09:00etan hasi ziren egosten 14 parte-hartzaileen odolkiak eta denbora gutxiren bueltan hasi ziren epaimahaiko kideak hauek dastatzen. Epaille lanak egiten ari ziren Amaroako Auzo Elkarte-ko Aitor Lasa; Casa Julianeko Matias Gorrotxategi; San Blas elkarte-ko Iñaki Artola; Amaro jateetxe-ko Pascual Urdanpilleta; Xabier Ruiz sukaldaria eta Nicolas erretegitiko Pedro Ruiz.



Hau da hau sagar alea!

AZOKA » Inguruko sagarrik handiena ikusgai zen atzoko azoka berezian. 1,325 kilo pisatzen zituen Jumbo sagarra ekarri zuen Manuel Iradik jendeari erakuskeko. Hau, Hernaniko Zabaloenea baserriko sagastietan jaio da. Gainera, aipatzekoa da, bildu zutenetik hona hamabost gramo galdutuela fruituak. E. EZEIZA

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin beharra dago. Interesatuak deitu 657 23 0011era edo 634 9194 82ra.

ALOKAIRUA

■ **Etxea.** Etxe bat alokatzen da Tolosako erdialdean. Bi gela dauka, erdi amueblatuak. Berritua dago,

igogailuarekin. Leku eguzkitxuan. 650 euro hilean. Interesatuak deitu 656 73 60 56 telefono zenbakira.

■ **Etxea.** Jakan, hiru logelako etxebizitza alokatzen dut. Asteka edo hilabeteka. Interesatuak deitu 635 75 02 93ra.


LANA

■ **Etxeko lanak.** Emakume euskal-

duna behar da etxerako, astelehene-
tik larunbatera, 09:00etatik
15:00etara. Interesatuak deitu
650 801917ra.

HARREMANAK

■ **Lagun bila.** 45 urteko gizona 25-50 urte arteko lagun gaien bila, konpromisorik gabeko harremanetarako. Topaleku lasaia daukat. Idatzi alulaga@yahoo.es.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



'Bayoneta'-ren lehen alea kalean da

TOLOSA • Bayoneta aldizkariaren lehen aleak banatu zituzten atzo Tolosako kaleetan. Honek, hirian duela 200 urte gertatutakoak kontatzen ditu, eta atzokoan, lehendabiziko argitalpen hori banatzeko, garai hartako arropak jantzi zituzten banatzaileek. Honenbestez, historian atzera egiteko aukera emango du Bayoneta-k. **ESTI EZEIZA**



Hamaika urte bete ditu Bonbereneak

TOLOSA • Hamaika urte bete ditu aurten Bonbereneak. Hori ospatzeko, gehien gustatzen zaien modua erabili dute, musika. Atzo goizean kalera atera ziren Bonberenea txarangakoak eta Mulambo perkusio taldekoak urteurrena lau haizetara zabaltzeko. Kaleak alaitu ostean, bazkaria egin zuten etxe okupatuan, jaiarekin jarraitzeko. **E. EZEIZA**



Tolosa, Juan Jose Agirreren bihotz begietan

TOLOSA • Tolosa bihotz begietan izenburupean, Juan Jose Agirreren margolanak ikusgai dira Aranburu Jauregian. Atzo eguerdian inauguratu zen eta jende ugari hurbildu zen tolosarra zoriontzera. Berak bizitako Tolosa islatu du margolanetan, hau da, duela urte batzuetakoa. Hala, toki askotan oraingoa eta ordukoa alderatuz, desberdintasun ugari ageri dira. **E. EZEIZA**



AHT gero eta gertuago dela salatuz

TOLOSA • AHT Gelditu! Elkarlanak deituta elkarretaratzera egin zuten atzo goizean, gero eta gertuago baita eskualdean obrak hasteko aukera. Izan ere, Legorretatik Tolosarako AHTren trenbidearen zatia lehiaketara ateratzea erabaki du Eusko Jaurlaritzak. Protesta ekitaldian, eskuorri batzuk banatu zituzten, bertan, proiektuaren inguruko zenbait datu agertuz. **E. EZEIZA**



Euskal Herriak 2-3 galdu du Errumaniarekin

TOLOSA • Usabal Kiroldegian II. Adiskidetasun Txapelketaren finala jokatu zuten Errumania eta Euskal Herriak atzo. Euskal selekzioa jarri baldin bazen ere aurretik, Oier Garmendiak sartutako penalti bati esker, euskaldunek amaieran 2-3 galdu zuten. Ondoren, Adiskidetasun jardunaldiaren parte hartu zuten guztiak mahai inguruan bildu ziren bazkaltzeko asmoz. Ereitek antolatutako ekimenean 12 herrialdek parte hartu dute aurtengoan. **ASIERIMAZ**



Gipuzkoako ezker hormako txapelketa jokoa

IBARRA • Neska nagusien Gipuzkoako ezker hormako Txapelketa-Kutxa sariko finalerdiak jokatu ziren atzo Belabieta kiroldegian. Lehendabiziko partidari, zein baino zein aritu ziren Su-Berri eta Real Sociedadeko jokalariek. Bigarren taldean berriz, Ikasberri eta Hernaniko pilotariak aritu ziren. Eguneko azken partidak, hau da, nagusiek amaitu ondoren, jubilenenak izan ziren. **E. EZEIZA**



11°
2°

GOIZA EGUZKIA
ARRATS. EGUZKIA
BEROENA 13°
HOTZENA 5°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: OS-0398-03
Zuzendari: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L. ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Tolosaldea Garatzenen Immigrazio Sailak literatur lehia-keta antolatuta du *Emakumeen kontribuzioa migrazio prozesuetan* gaiari buruz, euskaraz eta gaztelaniaz, 16 urtetik beherakoentzat eta gorakoentzat. Lanak Tolosaldea Garatzenen (San Esteban auzoan) egoitzan aurkeztu beharko dira.
■ **Ibarra.** Merkatu Txiki Misiolaria Ekuador, India eta Hondurasen alde 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara Parrokia-ko lokaletan.
■ **Irura.** LH1, LH2 eta LH3ko ikasle-ek Eguberrietan xakean jolasteko aukera izango dute. Abenduaren bihar eta etzi, 11:00etatik 13:00etara liburutegiko gurasoen egongelan.
■ **Tolosaldea.** Urtero bezala, abian da Sahararen aldeko Euskal Karabana, *Piztu Itzaropena* lelopean. Eskualdean, Tolosaldea Sahararekin Sahara bizi elkartea ari da aurrera eramaten janari bilketa. Aurten, arroza, lekaleak, pasta, hegaluzea oliotan, sardinak oliotan, azukrea eta konpresak ari dira jasotzen. Eskualdeko udaletxeetan, nahiz supermerkatuetan utzi ahalko dira.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Aranburu jauregian bi erakusketa daude ikusgai: Ingurugiro departamentuak antolatuta, La Caixaren babespean *Basoa* erakusketa, eta Juan Jose Agirren argazki erakusketa.

Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoan gaur: 17:00etan, *Hellboy 2*, 19:30ean, *Retorno a Brideshead* eta 22:00etan, *Solo quiero caminar*. Bihar (ikuslearen eguna): 20:30ean, *Retorno a Brideshead*.

A Agurrak



Urte askoan!

Ebarista Arrate (Lizartza). Oraindik ez zara iritsi eta asko izatera. Gaur ederki ospatuko dugu!

■ **Villabona.** Gaur: 17:00etan, *Olentzero eta oparien ordua* eta 19:30ean, *Noches de tormenta*. Bihar (ikuslearen eguna): 17:30ean, *Olentzero eta oparien ordua*, 21:30ean, *Noches de tormenta*.

» **GUARDIAKO FARMAZIAK Gaur**
■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.

■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefono zenbakia: 112.
Bihar
■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. Telefono zenbakia: 112.
HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Erabili txartelak, puntuak bildu eta aukeratu zure oparia.

Ordaindu **kutxa**ren zure kreditu-txartelekin eta zure oparia hementxe ikusiko duzu: www.kutxa.net.



Philips LCD TDT
26" telebista



Spinning bizikleta



MAGEFESA
sukaldeko tresneria



iPod Nano 8Gb



Philips mikrokatea,
MP3 eta USBrekin



Guijueloko
beso Iberikoa



zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

Sustapen hau MasterCard Urdina, Visa Corporate, Visa Classic, Visa Urrea eta Visa Gazte txartelentzat da baliozkoa. Oparien katalogoa eta oinarriak www.kutxa.net-en eta zure bulegoan.